



## **HKEE-REN PRENTSA OHARRA, ZALDIBIAKO UDALAREN 2006-KO FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA.**

---

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak Zaldibiako Udalaren 2006ko ekitaldiaren Kontu Orokorraren eta ekonomia-finantza jardueraren gaineko fiskalizazio lana mamitu du. Txostena aho batez oniritzi dute HKEEren Osokoaren kideek.

Txostenak kontularitza eta legezkontasunari buruzko alderdiak besarkatzen ditu, udal kudeaketa hobetzeko gomendioak eta Udalaren finantza egoera aztertzen du.

Udalaren jarduera aztertzean, legezkontasunaren atalean HKEEk aldeko iritzia eman du legea betetzeari dagokionez, iritzi orokor honen gainean hiru salbuespen soilik egin dituela.

Hiru salbuespen horiek administrazioko kontratazioa arautzen duen legezkontasuna urratu izanari dagozkio:

- Horietan lehenengoa Karreane eraikina zaharberritzeko lanen esleipenari dagokio, publizitaterik gabeko prozedura negoziatu bitartez eskaintza bakarra eskatuta esleitu zirenak, gutxienez hiru eskatu behar ziratekeenean.
- Bigarrena Resti pilotalekua zaharberritzeko lanen esleipenak eragindakoa da, izan ere, eskaintza aldatzeko aukera eman zitzaion lehiatzaile bati esleitu baitzitzaion, bete gabe utzi behar zatekeenean, eskaintza guztiak lehiaketa prezioa gainditzen zutelako.
- Azkena, Udalak Arkakako arrantza eta aisialdi zentroko proiektuaren eta Amundarain ibaia interpretatzeko zentroaren museografia proiektuaren kontratuak zatikatu izanak eragin du.

Udal kontuen gaineko iritziaren atalean, fiskalizazio txostenak ondorioztatu du Kontuek egoki erakusten dutela udal jarduera, honako salbuespen hauekin: Udalaren ondasun eta eskubideak besarkatuko dituen ondasun zerrenda ez izatea; ibilgetuaren kontularitzako amortizazio eza; eta Diruzaintza geldikina 283 milioi euroan urritzen duten hainbat doiketa egitea, 2.428 mila euroan uzten dutenak.

Finantza egoerari dagokionez Udalak Aurrezki Garbi positiboa izan arren, hori ez dela behar hainbatekoa azken urteetako inbertsio mailei eusteko adierazi da; inbertsio horiek



Herri-Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

jasotako diru-laguntza eta bere jabetzako industri pabiloien salmenta bitartez finantzatu dira.